

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Errentaren gaineko lehen zerga

FLORENTZIA, 1427. *Castato* (katastro) izeneko erregistroa ezarri zen lurren jabetza kontrolatzeko. Eta erregistro horretan oinarrituta, historian lehen aldiz, errentaren gaineko zerga ezarri zuten. Hala, Erdi Aroko zerga sistema hautsi zuten, aro horretan zerga guztiak zeharkakoak baitziren.

Zerga horren arabera, Florentziako familia buru guztiek, hiru urtean behin, "errenta aitortpena" egin behar zuten, hau da, beren ondasunei buruzko txosten bat aurkeztu behar zuten. Txostenak familiaren diru sarrerak, jabetzak eta zorrak jaso behar zituen, eta familiaren kide kopurua ere kontuan hartzen zen.

Gaurko errenta aitortpenetan ez bezala, eta esperimendu berria zelako behar bada, ordaintzaileek errenta txostenetan kexak, eskaera pertsonalak edo iradokizunak eranstea aukera zuten. Zerga progresiboa zen, alegia, zenbat eta errenta edo mozkin handiagoa, orduan eta gehiago ordaindu behar zuten hiritarrek. Bestalde, zorioneko salbuespenak edo arintzeak ere hasiera-



Piero di Cosimo de' Medici (1416-1469) garaian ezarri zen Florentzian errentaren gaineko zerga. Piero mezenas eta arte bildumagile ezaguna izan zen. Kasualitate hutsa?

rik ezarri zituzten, esaterako, higiezinaren edo artelanen gainean.

Italiar *quattrocento*an arteak garrantzi handia hartu zuten, besteak beste, mezenasgoak artistei eman zien babes ekonomikoari esker. Hain zuzen, Florentzia izan zen mezenasgoa hedatu zen eta arteak eztanda egin zuen hiri nagusietakoa. Eta Medicitarrek, hiriko familia boteretsueneko kideak, horretan nabarmendu ziren, besteak beste, Michelangelo Buonarrotti, Donatello eta Fra Angelico diruz lagunduta. Cosimo de' Medici (1389-1464) sendiaren dinastia politikoa fundatu zuen eta Ufizzi galeria ezaguna eraikiarazi zuen. Piero semeari osasun ahulak ez zion aginte politikoan eragin handirik izaten utzi, baina mezenas eta bildumagile garrantzitsua izan zen.

Gizartearen garapen kulturala bultzatzeko ala errentaren gaineko zerga arintzeko ahalegina zen? Arteak zergak arintzen zituelako egin ziren artezale? Ala artezale zirelako erabaki zuten artea zerga-arintze izatea?

Arrastoak

Urdaibain 11 metroko kroskoa aurkitu dute

URPEKO ikerlari talde batek 11 metro luze den belaontzi baten kroskoa aurkitu du Sukarrieta eta Ibarrangeluren artean hondoratuta. Bitan hautsitako kroskoaz gain, bina metroko hiru kanoi ere aurkitu dituzte urpekariek, baina adituek ez dute uste ontziaren

ekipamenduaren parte zirenik, hondoratu zen uanean zeraman karga baizik. Hurrengo urratsa arrastoaren bideoa grabatzea izango da, nola babestu aztertzeko. Datazio zehatzagoen zain, ikerlariak diote belaontzia XVIII. edo XIX. mendekoa dela.



LANDER ARBELAITZ